



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ

20-4-2020

IKTUS OSTEKO AFASIAN TERAPIA DESBERDINEK KOMUNIKAZIO ETA BIZI KALITATEAN DUTEN ERAGINA

Gradu Amaierako Lana


Zuzendaria: Jagoba Zarandona

Hitz kopurua: 5922

Maitane Mariño Anakabe

GASTEIZEKO ERIZAINZAKO UNIBERSITATE ESKOLA

Eskerrik asko nire ikaskideei lau urte
hauetan bidea errazteagatik.



AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA	3
3. HELBURU OROKORRA.....	7
4. METODOLOGIA	8
4.1 Diseinu mota	8
4.2 Bilaketa estrategia	8
4.3 Hautaketa prozesua	8
4.4 Data Analisia.....	10
5. EMAITZAK ETA EZTABAIDA	12
6. MUGAPENAK	20
7. ONDORIOAK.....	22
8. BIBLIOGRAFIA.....	24
ERANSKINAK.....	28
Eranskina 1: Hitz-gakoen taula	28
Eranskina 2: Bilaketa-prozesuaren taula	30
Eranskina 3: PRISMA fluxu-diagrama	38
Eranskina 4: Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia	39
Eranskina 5: Laburpen taula.....	43
Eranskina 6: Zuhaitz kategoriala.....	49

SARRERA

ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA: Iktusa ondorio kognitibo, motore, komunikatibo eta emozionalak sortzen dituen gaixotasuna da. Ondorio horien artean, %21-38 artean afasia agertzen da: idatzizko zein ahozko lengoia eragiten duen komunikazio defizita, pairatzen duten pertsonen komunikatzeko gaitasun eta bizi kalitatean galerak izaten dituztelarik. Afasia pairatzen duten indibiduoek zuzenduriko terapietarako dagokionez, gutxi dira errehabilitazio eta bizi kalitatea bermatzen duten interbentzioei buruzko ikerlanak. Horien artean, **Hizkera eta Lengoaia Terapia (HLT)** terapien gidaliburuaren arabera “gold standard” litzateke. Bestalde, errehabilitazioan oinarritutako ebidentziak terapia intentsiboek ere sostengua ematen diete, edozein delarik adina edo iktusa izan eta igarotako denbora. Azkenik, **talde terapiari** dagokionez, berdinen arteko elkarreraginaren aukera ematen duenari, komunikazioaren berreskuratzean laguntzeaz gain, paziente hauek jasaten duten isolamendua gainditzeko aukera ere izan daiteke.

HELBURU OROKORRA: Iktus osteko afasia pairatzen duten pertsonetan hizkera eta lengoia terapia, talde terapia eta terapia intentsiboak komunikatzeko gaitasun eta bizi kalitatearen berreskuratzean duten eragina aztertzea.

METODOLOGIA: Lan hau literaturaren errehabilitazio kritikoa dugu. Horretarako, *Medline (OVID), Medline (PubMed), Cinahl, Cuiden, PsycINFO eta Lilacs* datu baseak eta ebidentzian oinarritutako *The Cochrane Library* erakundea erabili ziren. Bertan, lengoia naturala eta zientifikoa eta operadore boletoak erabiliz, hainbat bilaketa ekuazio erabili ziren beharrezko ikerlanak eskuratzeko. Eskuzko bilaketa ere burutu zen *STROKE AHA Journals, Enfermería Clínica, RAO* eta *Journal of Advanced Nursing* aldizkari eta *Science Direct* datu basean.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA: Hizkera eta lengoia terapia komunikatzeko gaitasunaren berreskuratzerako eraginkorra dela dirudi afasiaren momentu kronikoan. Une oso goiztiarrean aldiz, ez da gomendatzen. Talde terapiari dagokionez, fase akutuan duen eragina aztertzeke informazioa falta bada ere, esan genezake fase kronikoan eraginkorra dela gure helburuari dagokionez. Azkenik, terapia intentsiboaz aritzean, komunikatzeko gaitasun eta bizi kalitatearen berreskuratzean emaitza positiboak ekarri arren, kontuan izan behar da neketsuegia izan daitekeela pazienteentzako, batez ere Iktusa izan osteko fase akutuan.

ONDORIOAK: Iktus osteko afasia pairatzen duten pertsonetan zein terapia den egokiena jakin ahal izateko, pazientearen ezaugarri demografiko eta behar fisiko, emozional zein sozialak izan beharko ditugu kontuan. Izan ere, Hizkera eta Lengoia Terapiak atentzio pertsonalizatua eskaintzen duen bezala, talde terapiarekin sozializazioa bultzatu daiteke. Era berean, batzuek terapia intentsibotik etekina atera dezaketen bezala, beste batzuentzako neketsuegia izan daiteke saturazioa eraginez. Horregatik, erizainon aldetik beharrezkoa izango da paziente bakoitzaren egoera kontuan izatea, beste edozein prozesutan bezala indibiduoaren beharretan oinarrituriko zaintza eskaini ahal izateko. Azkenik, aipatzekoa ikerlanaren emaitzak gure ingurura aplikatu ahal izateko hemengo osasun sisteman zentratutako lanak izatea komenigarria litzatekeela, betiere bertako osasun profesionalen bidez emandako disziplina anitzeko zaintzan zentratutak. Baina batez ere, lagin tamaina egokia izango duten ausazko entsegu kliniko beharra izan da faltan.

HITZ GAKOAK: *Iktus, Afasia, komunikazioa, bizi-kalitatea, interbentzioa, talde terapia, Hizkera eta lengoia terapia, terapia intentsiboa eta berreskuratzea.*

ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Iktusa garuneko zirkulazioaren asaldura batek eragindako garuneko funtzio baten edo batzuen asaldura akutua da, iraunkorra zein iragankorra izan daitekeena. Garunak odol-fluxua jaso behar du etengabe eta arteria edo zainak buxatu edo haustearen ondorioz, iskemia edo odol-jarioa eraginez, odol-fluxua bat-batean eteten da garun-ehun horren alterazio funtzionalaren sintomak azalaraziz. Ondorioz, ondorio kognitibo, motore, komunikatibo eta emozionalak sortzen ditu, horien artean afasia aurkitzen delarik, idatzizko zein ahozko lengoian eragiten duen komunikazio defizita¹⁻⁴.

Istripu zerebro baskularrak (IZB) gaur egun intzidentzia handia dauka, izan ere, estatu mailan soilik urtean 100.000 kasu berri ematen dira, 150-250 bat 100.000 biztanleko². Larritasunari dagokionez, 2015ean jada Europa mailan gaixotasun kardiobaskularrek heriotza guztien %37 osatzen zuten, horien artean iktusari dagozkionak %23 izanik⁵. Espainian aldiz, gaur egun bigarren heriotza kausa da (40.000 urtero), lehena izanik emakumezkoen artean eta ez hori bakarrik, lehen ezintasun kausa da bi sexuetan².

Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) dagokionez, iktusak 6.000 paziente baino gehiagori eragiten dio urtero⁴ eta Osasun Sailaren 2017-2020ko ildo estrategikoetan hirugarren lerroan kokatu genezake: zahartze, kronikotasun eta mendekotasunari zuzendua dagoena. Bertan, gizartearen zahartzea Osasun Sistema Publikoarentzako erronka bat dela aipatzeaz gain, EAEko heriotza-tasaren kausak errazten dizkigu, non zirkulazio arazoak bigarren postuan aurkitzen diren, tumoreei jarraituz. Hala ere, Plan Onkologiko integrala abiaraztea azaltzen den arren, ez da ezer aipatzen zirkulazio asaldurei dagokionez. Dena den, esan beharra dago datu hauek 2015ekoak direla eta ildo estrategikoak 2017-2020koak, beraz ezin daiteke esan Euskadin ez dela Iktusaren gaia artatzen⁶. Gainera, Osasun Saila eta Osakidetzaren arabera, 2019an EAEn iktusa duten pazienteen arreta-plan bat garatzen hasi zen arlo desberdinetako adituen lankidetzarekin. Horretarako, besteak beste, gaixotasuna ezagutzera emateko premia azpimarratzen da, hau da, herritarrek iktus aurreko seinaleak identifikatzen jakitearen garrantzia⁷.

Iktusaren artatze egokiaren beharra ulertzeko, jakin beharrekoa da jasaten dutenen artean hiru laurdena 65 urtetik gorako biztanleria delarik, intzidentziaren gorakada espero dela gizartearen zahartzearekin batera eta hau, aurretiaz aipatu bezala, osasun publikoarentzat erronka bat da. Iktus osteko afasiari dagokionez, Europa mailan 25-74 urte bitartean %21-38 arteko intzidentzia dago, hau da, urtean ematen diren Parkinson, Esklerosi Anizkoitza eta Distrofia muskularraren kasuak batera baino gehiago. Gainera, kontuan izanik afasia

jasateko oinarritzko kausa istripu zerebro baskularrak direla, jasaten dutenen artean heren batek pairatzen duelarik, honen gorakadarekin batera afasiarena ere espero daiteke. Hala ere, afasiak gaur egun ezezaguna izaten jarraitzen du gizartean³.

Nahaste honek komunikazioan dakarren eragina ulertzeko, kontuan izan behar dugu hizkera hitz egiteko gaitasuna dela eta lengoaia, aldiz, adierazteko modua (idazketa edo keinu bidezko lengoaia bezala). Afasiari dagokionez, salbuespenak salbu, erdiko garun-arteriaren eremuko lesioaren ondorioz, lengoaiaren formulazio eta ulermen prozesuen galera total edo partziala ematen da, eguneroko bizitzako aktibitate eta autonomian negatiboki eraginez^{1,2}.

Bizi-kalitateari dagokionez, lehendabizi kontuan izan behar dugu giza komunikazioa oinarri biologiko eta psikologikoa duen funtzio bital eta soziala dugula, norbere garapenerako beharrezkoak diren prozesu interaktiboak baimentzen dituen⁸. Baina, afasia pairatzen dutenen artean, komunikaziorako sarrera hori oztopatua dago: elkar eragiteko gaitasunean eragiten du sostengu sozialerako sarbidea oztopatuz, inpaktu negatiboa eraginez harremanetan eta, ondorioz, depresioa bezalako sintomekin erlazionatuz¹. Azken batean, afasia bat-batean agertzen da alderdi guztietan eraginez: sozialki, lanean, emozionalki eta bizitzako une guztietan. Izan ere, ezin izaten da ordurarte betetako rola mantendu, familiak krisia jasaten du, lagunak alendu egiten dira ez dakitelako nola jokatu eta azkenik, indibidua isolatu egiten da³.

Kolonbiako Rosarioko Unibertsitatean egindako ikerketa baten arabera, afasia duten pazienteek isolatzea eta komunikaziorako aukera urriak izaten dituzte. Ondorioz, eguneroko bizitzako aktibitateetan interakziorik eskatzen ez duten eta beraien etxeetan bezalako inguru erosoetan aurrera eraman dezaketen ekintzak nagusitzen zaizkie, modu horretan, kolektiboa ezkutatzera helduz⁸. Ikerlan hau indartu eta afasiak bizi kalitatean duen eragina ulertzeko beraz, aipatzekoa da Giza Garapenaren Teoriaren arabera (*Theory of human scale development*) **bizi kalitatea** osasun fisikoaz gain, giza-harreman eta autorrealizazioaren menpe dagoela⁹.

Iktus osteko afasia pairatzen duten indibiduoek zuzenduriko terapiari dagokionez, populazioa handia bada ere, gutxi dira errehabilitazio eta bizi kalitatea bermatzen duten interbentzioei buruzko ikerlanak¹⁰. **Hizkera eta lengoia terapia (HLT)** adibidez, helburutzat indibiduoaren komunikatzeko gaitasuna hobetzea duen terapia dugu. Kontua da ikerketa desberdinen emaitzak kontraesanetan daudela terapia honen eraginkortasunari dagokionez. Horren arrazoi izan daiteke ez dagoela zehaztuta tratamendu espezifiko bat

terapia indibidual hauetan paziente eta terapeuta arteko elkarriketa aurrera eramateko¹¹. Hala ere, HLT iktus osteko afasia duten pazienteetan gomendatua izan ohi da. Hala nola, Cochrane erakundearen errebisio sistematikoaren arabera, hobekuntzak dakar populazio honetan eta Bhogal S, Teasell R, et al-ek 2003an egindako errebisio sistematikoaren bidez ere terapia honen garrantzia azpimarratzen da berreskuratzean. Ahaztu gabe, hizkera eta lengoaia terapia, terapien gidaliburuaren arabera “gold standard” litzatekeela afasiaren tratamendurako¹²⁻¹⁴.

Talde terapiari dagokionez, 1999an jada terapia honek lengoia dituen onurak frogatzen hasiak ziren eta 2016an egindako ikerketa baten arabera aditzera ematen da talde terapia komunikazio naturala bultzatzeko inguru egokia izan daitekeela. Izan ere, berdinen arteko komunikaziorako aukera ematen duenez, indibiduoak errazago hasten dira komunikatzen talde terapian terapia indibidualean baino. Hala ere, esan genezake interbentzio mota hauek bizi kalitatean duten eragina baloratzeko ikerketentzako lekua dagoela oraindik^{11,15,16}. Gainera, ez dago argi talde terapiak izan behar duen intentsitate, ikuspuntu edo iktusa jasan eta zenbatera hasi beharko litzakeen. Hala ere, badirudi, terapia indibiduala eta talde terapia konbinatuz eraginkortasuna handiagoa izaten dela¹⁷.

Massachusetts-eko ospitale jeneralean, talde terapia eta terapia indibiduala konbinatzen zituen ICAP (Intensive Comprehensive Aphasia Program) programa baloratu zuten iktus osteko afasian. Bertan, aldaketa positiboak eman ziren linguistika, komunikazio eta bizi kalitateari dagokionez; agerian utziz terapia indibidualaz gain, talde terapia ere erabiliz komunikatzeko gaitasuna eta bizi kalitatea hobetzen dela¹⁸.

Lan honek, azkenenik, **terapia intentsiborako** sarrera bezala balio digu, non, terapia honen eraginkortasuna ikusi ahal izan dugun komunikazio eta bizi kalitateari dagokionez, talde terapia barneratua izan arren. Terapia intentsiboa astean 5 ordu baino gehiago ematen dena bezala defini genezake^{14,17} eta aipatzeko da hizkera eta lengoaia terapia “gold standard” bezala ezagutzen bada ere, tratamendu horren intentsitatea ere gakoa izan daitekeela emaitzei begira. Kontua da, terapia horien eraginkortasuna bermatzeko ausazko entsegu klinikoetan oinarritutako ebidentzia falta nabari dela oraindik gaur egun, batez ere afasia kronikoari dagokionez (>6 hilabete iktus ostean). Hala ere, errebisioetan oinarritutako ebidentziek sostengua ematen die terapia intentsiboei¹⁴ eta badirudi adin guztietako pertsonak atera dezaketela etekina terapia hauetatik, momentu akutu edo kronikoan aurkitzen badira ere¹⁹.

Baina ez dakigu pazienteak iktusa izan eta denbora gutxira gai diren terapia intentsiboa jasateko, zein izango litzatekeen jasan daitekeen intentsitate maila gorena eta onuragarria izango zen edo ez terapia intentsibo hau iktusa izan eta gutxira hastek²⁰. Horregatik, terapia honetan zein faktorek eragin duen jakitea ere interesgarria litzateke norentzako den onuragarria zehaztu ahal izateko¹⁹. Aurretiaz aipaturiko Bhogal S, Teasell R, et al-en errebisioa lanaren arabera ere, terapia honen eraginkortasuna ikusteko ikerketa beharra dago oraindik. Izan ere, ikertutako 10 lanen artean 3rek erakutsi zituzten kalitate egokia, besteak beste terapiaren intentsitatearen zehazte eta emaitzetarako neurri estandarizatuen falta zela eta. Gainera, ikerketa askotan erabilitako lagin tamaina txikiegia zen. Hala ere, 2-3 hilabeteetan zehar emandako terapia intentsiboak afasiaren berreskuratzerako erabakigarria zela ondorioztatu zuten. Baina noski, kontuan izan behar da errebisio hau 2003koa dela eta beraz, ikerketa gehiagoren beharra agerian geratzen da berriro ere¹³.

Kontuan izanik beraz, Iktus osteko afasia pairatzen dutenen artean komunikazio zailtasunez gain, bizi kalitatea murriztu eta bai hezkuntza, enplegu eta integrazio komunitarioarako sarrera zaildu daitekeela, interesgarria litzateke hiru terapia hauen eraginkortasuna aztertzea. Izan ere, badirudi hizkera eta lengoia terapiaren eraginkortasuna baieztatzen duten nahikoa froga daudela jada, batez ere intentsitate egokian eramanez gero aurrera. Azkenik, talde terapian egoera berdinean dauden kideekin egotean, motibazioa handiagoa izan ohi da elkar-eraginean hasteko. Gainera taldean parte hartzeak isolamendu soziala murriztu dezake²¹. Hau guztia dela eta beraz, hiru terapia hauek komunikatzeko gaitasun eta bizi kalitatearen berreskuratzean duten eragina aztertu nahi da.

HELBURU OROKORRA

Iktus osteko afasia pairatzen duten pertsonetan hizkera eta lengoaia terapia, talde terapia eta terapia intentsiboak komunikatzeko gaitasun eta bizi kalitatearen berreskuratzean duten eragina aztertzea.

METODOLOGIA

1. Diseinu mota

Lan hau *Khalil H, Peters M, Godfrey C, Soares C eta Parker D-en Scoping Review*²² artikulua metodologiari jarraituz garatua izan den literaturaren errebisio kritikoa dugu.

2. Bilaketa estrategia

GrAL-aren bilaketa prozesurako ondorengo datu-baseak erabili ziren: *Medline (OVID)*, *Medline (PubMed)*, *Cinahl*, *Cuiden*, *PsycINFO* eta *Lilacs*. Ebidentzian oinarritutako *The Cochrane Library* erakundea ere erabili zen eta azkenik, eskuzko bilaketa ere burutu zen aldizkari desberdinetan; hala nola, *STROKE AHA Journals*, *Enfermería Clínica*, *RNAO*, *Journal of Advanced Nursing* eta *Science Direct* datu basean.

Bilaketa prozesurako, helburutik abiatuz hitz gakoak atera ziren: *Iktus*, *Afasia*, *komunikazioa*, *bizi-kalitatea*, *interbentzioa*, *talde terapia*, *hizkera eta lengoiaia terapia*, *terapia intentsiboa* eta *berreskuratzea*.

Behin hitz gakoak zehaztu ostean eta DeCS aplikazioaz baliatuz, hitz-gako bakoitzaren sinonimoak bilatu ziren (gaztelera eta ingelesez ere bai) eta Medline eta Cinahl datu-baseekin hasiz, bakoitzari dagokion deskriptoreak ere ezarri ziren (Mesh, encabezamientos de Cinahl) (Eranskina 1: Hitz-gakoen taula).

Ondoren, bilaketa-ekuazioak eraiki ziren AND eta OR operadore booleanoak eta lengoiaia kontrolatua zein naturala erabiliz. Konbinazio ezberdin ugari erabili ziren ikerlan egokiak aurkitzeko asmoz eta bilaketa emaitza handiegia zen horietan, datu baseen filtroez baliatu nintzen (argitaratze urtea, adibidez). Behin bi datu base hauek erabili ostean, aurretiaz aipaturiko gainontzekoak erabili ziren, bakoitzari dagokion deskriptoreak identifikatuz eta bilaketa-ekuazioekin jarraituz (Eranskina 2: Bilaketa-prozesuaren taula).

Azkenik, artikulua eskuratu eta irakurri ostean, haien bibliografia ere gainbegiratu zen, lanaren helburuari erantzungo zieten artikuluren bat aurkitzeko asmoz.

3. Hautaketa prozesua

Lan honen garapenerako beharrezkoak ziren artikuluen hautaketarako, PIKO formatuarekin garaturiko helburua eta barneratze/kanporatze irizpideak hartu ziren kontuan momentu oro. Hori horrela, eta kontuan hartuz Populazioa **Iktus osteko afasia pairatzen duten pazienteak** direla, hortik hasi zen irizpideen zehaztea (Taula 1).

Lehendabizi, beraz, iktusagatik ez ziren gainerako afasiak baztertu ziren. Baita ere iktusak sortutako afasiaz gain komunikazioan eragin dezaketen beste nahaste/gaixotasunak:

besteak beste arazo neurologikoak, psikotikoak edo depresioa. Izan ere, emaitzak neurtzeko orduan ezingo genuke terapia desberdinen eraginkortasuna afasiari dagokionez neurtu soilik oinarrian komunikazioan eragin dezaketen beste nahaste batzuk egonez gero. Hala ere, puntu honetan aipatzekoa da nola iktus osteko afasiarekin batera etorri daitezkeen disartria edo apraxia bezalako komunikazio akatsak ere onartu zirela ikerlan falta zela eta.

Era berean, ikerlanaren momentu berean beste terapia batean egotean, ezingo zen desberdindu gure interbentzioa edo beste terapia den eraginkortasunaren arrazoi. Azkenik, ama-hizkuntza atzerrikoa izatea azken batean komunikazio barrera bat gehiago izango litzateke, zeinak lanaren emaitzetarako ere arazoak ekarriko zizkigun. Atal honetan, aipatzekoa da, bilaketa-prozesuan zehar, adina, sexua, egoera zibila eta iktusa izan osteko denbora bezalako faktoreak ez baziren ere kontuan hartu, emaitzak aztertzeko orduan kontuan izan beharreko faktoreak ditugula.

Honen ostean, **interbentzioa** egoki zehazteko asmoz, hiru terapia nagusiak barneratu ziren: **hizkera eta lengoiaia terapia, talde terapia eta terapia intentsiboa**. Hiru interbentzio hauek oso desberdinak izan daitezkeen arren (adibidez bi terapia intentsibok beraien artean ordu kopuru desberdina izan dezakete), ez ziren askorik zehaztu zeren aurretiaz egindako bilaketa sinplean informazio falta susmatu zen. Bestalde, hurrei bideraturiko ikerketak zuzenean baztertua erabaki zen gaitasun komunikatiboak ere guztiz garatu gabe egon daitezkeelako.

Behin ikertu beharreko populazio eta interbentzioa zehaztu ostean, lan motei dagokionez, aipatzekoa ikerketa analitiko esperimentalei emango zitzaiela lehentasuna, azken batean, interbentzio bat eraginkorra den edo ez baloratzeko egokienak bai dira. Baina, behaketa lanek ere, fidagarritasun maila baxuagoa izanda ere, informazio baliagarria eman dezaketenez onartutzat eman ziren. Errebisio bibliografikoei dagokionez, beharrezkotzat emanez gero, horrelako lanetan oinarrituak zeuden horiek barneratuko ziren.

Azkenik, argitaratze datari dagokionez, ahalik eta fidagarritasun maila handiena mantendu nahian, gaurkotasuna islatzen zuten artikulu horiek nahi ziren. Hala ere, informazio urria dela eta beharrezkotzat eman zen gutxienez 10 urtera zabaltzea.

Taula 1: Barneratze eta kanporatze irizpideak

	BARNERATZE IRIZPIDEAK	KANPORATZE IRIZPIDEAK
LAGINA/POBLAZIOA	-IKTUS osteko afasia pairatzen duten pazienteak	-Iktusa ez den beste kausa batzuegandik sortutako afasia. -Komunikazioan eragin dezaketen nahasteak/gaixotasunak (dementzia, eskizofrenia, parkinsona...) -Atzerriko hizkuntza izatea ama-hizkuntza -Beste terapia batean egotea interbentzioaren aldi berean
INTERBENTZIOA	-Talde terapia -Hizkera eta Lengoaia terapia -Terapia intentsiboa	-Haurrei (12 urteraino) bideraturiko interbentzioak
ARTIKULUAK	-Ikerketa analitiko esperimentalak -Behaketako ikerketak	-Literatura grisa -Ikerketa deskriptiboak -Oraindik emaitzak kaleratu gabeko ikerketa prospektiboak.
Hizkuntza	Euskara, gaztelera, ingelesa	
Bilaketa urteak	2009-2019	

Irizpideak ondo zehaztu ostean, bilaketa bibliografikoa burutzeko datu baseetan, errepikatuak eta helburuarekin bat ez zetozen horiek baztertu ziren lehendabizi, tituluak irakurriz. Baita ere helburuarekin bat etorri arren, irizpideak betetzen ez zituzten horiek.

Baliagarriak ez ziren horien artean, orokorrean interbentzio mota dela eta baztertu ziren; adibidez, interbentzio nagusia ordenagailu bidezko programak izateagatik edo zaintzaileei bideraturiko lanak. Horretaz gain, iktusa ez den beste kausa batzuegandik (parkinsona edo dementzia, adibidez) afasia pairatzen zuten pazienteetan egindako hainbat ikerlan ere baztertu ziren. Baita ere, interbentzio bat neurtu beharrean afasia pairatzen duten horien esperientzia kontatzen zituzten lanak. Fase honetan azkenik, baliagarriak ziruditen horien artean *Abstract*-ak irakurri ziren irizpideak betetzen zituzten ziurtatzeko eta horrela, *full-testak* eskuratzeko (Eranskina 3). Azkenik, behin *full-testak* izanda, irakurketa kritikoa egin zen irizpideak guztiz betetzen ziren baieztatu eta horrela emaitzak interpretatzeko (Eranskina 4).

4. Data Analisia

Aukeratutako lanen artean, irakurketa kritikoa burutu ostean, lanean barneraturiko artikuluen datu esanguratsuenak taula batean laburtu ziren, non ondorengo datuak barneratu ziren: Egilea, urtea eta lurralde; lanaren helburua; lagina; interbentzioaren ezaugarriak eta interesdun emaitzak (Eranskina 5: Laburpen taula).

Modu horretan, laburtutako informazioaren bidez, emaitzen arteko konparaketa egin zen, analisi kualitatiboa burutu ahal izateko. Azkenik, artikuluen data kategoriatan banatu eta zuhaitz-kategoriala sortu zen, hizkera eta lengoia terapiak, talde terapiak eta terapia intentsiboak iktus osteko afasian duen eragina aztertzeke, komunikatzeko gaitasun eta bizi kalitateari dagokionez.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Emaitzen interpretazioa burutzeko kategoriak banatu ziren: alde batetik, iktus osteko afasia pairatzen duen populazioa momentu akutuan edo kronikoan egotearen arabera. Bestalde, populazio talde bakoitzean, hizkera eta lengoia terapiak (HLT), talde terapiak eta terapia intentsiboak komunikatzeko gaitasun eta bizi kalitatearen berreskuratzean duten eragina aztertuko zen (Eranskina 6).

Hiru terapia horiek gure populazioan duten eragina aztertzeko, lehendabizi kontuan hartu behar da talde honen heterogeneotasuna zabal dela: Iktus eta afasia mota, iktusa izan eta igarotako denbora, adina, ikasketa maila edo zaintzaile beharra duten, besteak beste. Era berean, terapiak ere oso desberdinak izan daitezke beraien artean eta baita ere terapia berdina ikerlanaren arabera. Lan honetan beraz, hizkuntza eta lengoia terapia (HLT), talde terapia eta terapia intentsiboa aztertu ziren, iktusa jasan eta igarotako denbora kontuan harturik.

Horretarako, bilaketa prozesuaren bidez 13 artikulua eskuratu ziren (Eranskina 5) herrialde desberdinetan kokatuak: hiru Australian (2,6,12), hiru Alemanian (3,8,10), bi Erresuma Batuan (5,11), bi Amerikako Estatu Batuetan (4,13) eta besteak Brasil (1), Suedia (7) eta Portugalen (9) daudelarik kokatuta.

Diseinuarekin jarraituz, aipatzekoa da informazio falta nabari izan bada ere bilaketan zehar, eskuraturiko ikerlan guztiak esperimentalak direla, horietatik sei esperimental garbiak izanik (3,5,7,8,9,10). Gainontzeko 7ak beraz, sasi-esperimentalak dira, batzuetan kontrol taldearen faltagatik (1,2,3,6,11) eta beste batzuetan kontrol taldea egon arren ez delako ausaz egin banaketa (12,13).

Ikerlanen laginari dagokionez, azpimarratzekoa da hiru ikerketetan adierazten dela soilik modu esplizituan laginaren tamaina modu egokian neurtu izana (8,9,10). Gainera, gainontzeko ikerlanen artean, batean kendurik (5), lagina 60 edo hortik beherakoa zen. Beraz, esan genezake ikerlan hauek klinikoki esanguratsuak izan daitezkeen arren, ez direla estatistikoki; izan ere, laginak ez dira behar bestekoak populazioarekiko adierazgarriak izateko. Datu demografikoei dagokionez, alde batetik ez da desberdintasun esanguratsurik eman laginetan sexuari dagokionez, bi artikulutan kendurik (11,12). Hala ere, ikerlan horietan ez diote berebiziko garrantzirik eman sexu desberdintasunari emaitzak neurtzerakoan. Beste aldetik, adinarekin jarraituz, bi ikerlanetan kenduta (6,13) adina mediaren bidez adierazi dute. Horietatik, 6tan adin media 60tik gorakoa da

(1,3,5,7,8,9), gainontzekoak 50etik gorakoak izanik (2,4,10,11,12). Hala ere, kontuan izan behar datu hauek media direla eta beraz, aipatu beharra dago ikerlan batzuetan 18-50 arteko jendea ere barneratua egon dela. Azkenik, lanaren helburuari begira iktus osteko denbora izan da kontuan; 6 ikerlan momentu akutuari (3,5,7,9,12) eta 7 kronikoari zuzenduak (1,2,4,6,8,10,11,13) egon direlarik.

Iktus osteko afasia akutua

Hizkera eta lengoia terapiarekin hasiz, Laska AC, Kahan T, et al.ek oso goiztiarra zen HLTren eraginkortasuna nahi izan zuten aztertu. Horretarako, iktus osteko 3 eguneko denboraren media zuen 123 pazienteko lagina hartu zuten eta ausazko entsegu klinikoaren bidez, interbentzio eta kontrol taldeak banatu. Ikerlan honetan, ANELT (Amsterdam-Nijmegen Everyday Language Test) eta Coeff-en (the Aphasia Coefficient) arabera ez zen taldeen arteko desberdintasun esanguratsurik eman ($p= 0.37$ ANELT eta $p= 0.86$ Coeff), oso goiztiarra den HLT ez dela eraginkorra ondorioztatuz¹² (Taula 2).

Iktus osteko momentu goiztiarrarekin jarraituz, Bakheit A, Magid O, et al.ek iktusa jasan eta ahalik eta lasterren terapiarekin hasi ahal ziren 116 partehartzaile aukeratu zituzten ikerlan bat burutzeko. Bertan, HLT kantitateak berreskuratzean zuen eragina nahi izan zen neurtu eta beraz, ohiko terapia (2h/astean, 12 hilabetez), terapia intentsiboarekin (5h/astean, 12 hilabetez) konparatu zen. Bertan, lengoia funtzioa baloratzeko Western Aphasia Battery erabili zen eta honen arabera, ez zen talde arteko desberdintasun nabarmenik eman, terapia hasi eta 4. eta 8. asteetan ($p= 0.88$ eta 0.98) behintzat. Hala ere, aipatzekoa da bi taldeetan eman zirela hobekuntza esanguratsuak komunikazioari dagokionez. Ikerlan honen bidez ondorioztatu daiteke beraz, HLT eraginkorra izan daitekeen arren iktus osteko hasierako momentuan, astean 2 ordu baino gehiagoko terapiak neketsuegi izan daitezkeela pazienteentzako²³. Era berean, Martins IP, Leal G, et al-en ikerlanean, terapia intentsiboa (2h/egunean, 5 egun/astean, 10 astez) terapia erregularrarekin (2h/astean, 50 astez) konparatu zen, iktus osteko afasia akutua zuten 30 pertsonako laginean. Honetan ere, ez zen taldeen arteko desberdintasun esanguratsurik eman²⁴.

Digman J, Copland D, et-al en eskutik LIFT (Language Impairment and Function Therapy, ICAP mota bat) programa agertzen zaigu, non, terapia modu intentsiboago (16h/astean) edo sakabanatuagoan (6h/astean) emanda konparatzen den. Konparaketa horretan, BNTren arabera, bai tratamendu osteko momentuan ($p=0.04$), bai hilabetera

($p=0.002$) taldeen artean desberdintasun esanguratsuak eman ziren, terapia modu sakabanatuan jasotzen zuten horiek emaitza hobekuntza izanik. CETIren arabera, aldiz, ez terapia ostean ez hilabetera, ez ziren desberdintasunik ikusi, bi taldeetan eman zirelarik hobekuntzak. Azkenik, *Communication Confidence Rating Scale for Aphasia* eta *Assessment of Living with Aphasia*-ren arabera ere, bi taldeetan eman ziren hobekuntzak, desberdintasun esanguratsurik gabe. Ikerlan honetan ondorioztatu zena beraz, LIFT programak, tratamenduaren intentsitatearekiko independenteki, efektu positiboa dakarrela komunikazio funtzional, komunikazioarekiko konfiantza eta bizi kalitateari dagokionez²⁵.

Taula 2: emaitzak afasia akutuan

IDAZLEA eta URTEA	INTERBENTZIOA + IKTUS OSTEKO DENBORAREN MEDIA	BERRESKURATZEA	
		Komunikazioa	Bizi kalitatea
Laska AC, Kahan T, et al. 2011 ¹²	Hizkera eta Lengoia terapia goiztiarra -3 egun	<u>ANELT</u> $p=0.37$ Coeff $p= 0.86$	Neurtu gabe
Bakheit A, Magid O, et al. 2007 ²³	Terapia Intentsiboa vs Ohiko Terapia -Terapia Intentsiboan= 34.2 egun -Ohiko terapan= 28.1 egun	<u>Western Aphasia Battery</u> -4.astean $p=0.88$ -8.astean $p= 0.98$	Neurtu gabe
Martins IP, Leal G, et al. 2013 ²⁴	Terapia intentsiboa (interbentzio/kontrol taldea) < 3 hilabete	<u>AQ</u> (aphasia quotient) $p=1$ <u>FCP</u> (Functionall communication profile) $p=$ ez esanguratsua	Neurtu gabe
Digman J, Copland D, et al. 2015 ²⁵	Terapia intentsiboa: 16h/astean vs 6h/Astean 4 hilabete	<u>BNT</u> : -Tratamendu ostean $p=0.04$ -Hilabetera $p= 0.002$ <u>CETI</u> : -Tratamendu ostean $p=0.05$ -Hilabetera $p=0.21$ <u>Communication Confidence Ratins Scale for Aphasia</u> -Tratamendu ostean $p=0.79$ -Hilabetera $p=0.48$	<u>ALA</u> -Tratamendu ostean $p= 0.37$ -Hilabetera $p= 0.75$
Woldag H, Voigt N, et al. 2017 ¹⁷	Talde terapia konbentzionala (TTK) vs CIAT vs Ohiko terapia daraman kontrol taldea (KT) -18.9 egun	<u>AAT</u> : KT erakutsi zituen soilik hobekuntza esanguratsuak azpiatal guztietan. <u>CAL</u> (Communicative Activity Log): Bai KT eta bai CIATen hobekuntza esanguratsuak emaitza kuali/kuanti. TTKren kasuan, hobekuntzak kualitatibotan.	Neurtu gabe

Azkenik, Iktus osteko afasia akutuari dagokionez, Woldag H, Voigt N, et al-en lanean CIAT (Constraint-Induced Aphasia Therapy) talde terapia, talde terapia konbentzionala eta HLT modu intentsiboan (talde terapia indibidualarekin konbinatuz) jasotzen zuen kontrol taldea konparatu zituzten. Lan honen helburua berez, CIAT-en osagai eraginkorra (intentsitatea edo komunikazio ez berbala ez erabiltzearen muga) aurkitzea zen. Hala ere, lan honen helburuarekin bat etorri ez arren, ondorio interesgarriak ekartzen dizkigu: honen arabera, talde terapia eta terapia indibiduala konbinatzen dituen 14h/2 asteetan emandako terapiak, 30h/10 egunetan emandako talde terapiaren emaitza berak dakartza komunikazioari dagokionez. Hau azaltzeko, besteak beste, bi faktore nagusi azaltzen dizkigu lanak: alde batetik aurretiaz aipaturiko terapia intentsiboek ekarri dezaketen saturazioa pazienteengan. Bestalde, terapia indibidualak atentzio pertsonalizaturako aukera dakarrela¹⁷.

Atal honetan aurkezturiko ikerketa sintesi honen arabera, esan genezake Iktus osteko afasia akutuan terapia hauek duten eraginkortasuna neurtzeko ez dela estatistikoki esanguratsuak diren interbentziorik aurkitu. Hala ere, laburbilduz, esan genezake oso goiztiarra den hizkera eta lengoaia terapia ez dela eraginkorra momentu akutuan¹². Terapia intentsiboari dagokionez, alde batetik, LIFT programa eraginkorra izan zela ondorioztatzen digun lana daukagu²⁵. Baina beste ikerlan batzuen arabera, ez da desberdintasun esanguratsurik aurkitu ohiko terapiarekin konparatuz eta gainera, terapia intentsiboa neketsuegia izan daitekeela izan behar dugu kontuan^{17,23,24}. Talde terapiari buruz aldiz, ez da aurkitu zuzenean fase akutuan interbentzio honen eraginkortasuna neurtzen duen lanik. Azkenik, bizi-kalitateari dagokionez ere, ez da fase akutuan honen neurketa burutzen duen ikerlanik eskuratu.

Iktus osteko afasia kronikoa

Afasia kronikoarekin hasi aurretik (Taula 3), sei hilabete¹⁴ baino gehiago irauten duena dela kontuan hartuz, aipatzeko da ez dela aurkitu zuzenean hizkera eta lengoaia terapiak komunikazio gaitasun eta bizi kalitatearen berreskuratzean duen eragina aztertzen duen lanik. Horren orde, Stahl B, Mohr B, et al-ek buruturiko lana daukagu, non, terapia honen denbora eta dosi optimoa nahi izan zen azertu, baina modu intentsiboan emanik. Bertan, urtebetez afasia pariatzen zuten 30 lagun batu zituzten eta bi taldetan banatu. Lehenengo taldean, 4 ordu jasotzen zituzten egunean, 3egun/astean, 4 astez. Bigarren taldean, aldiz, 2 ordu/egunean. Emaitzak neurtzeko AAT (Aachen Aphasia Test) eta ACT

(Action Communication Test) erabili zituzten eta hauen arabera, HLT afasia kronikoan eraginkorra da, bi taldeetan eman zirelarik hobekuntzak. Horretaz gain, terapiaren dosiari dagokionez, eguneko orduak gehitu beharrean, asteetan luzatzeak emaitza hobekiak dakartzala ondorioztatu zuten. Hala ere, aurretiaz esan bezala, ezin gara ahaztu terapia modu intentsiboan eman zenik eta beraz, ezin dugu zuzenean esan HLTri esker izan denik eraginkortasuna²⁶.

Talde terapiari dagokionez aldiz, Manson C, Nickels L, et al-ek ohiko talde terapiak afasia kronikoaren (12 hilabete) komunikazioan dakarren berreskuratzea nahi izan zuten neurtu, onuraren ebidentzia gutxi lortuz. Hala ere, esan beharra dago lan honetan erabilitako lagin tamaina ez zela batere egokia izan ($n=3$) eta beraz, lan honen emaitzak ezin dira guztiz fidagarritzat eman, ez bai da gure lanaren populazioarekiko adierazgarria²⁷.

Bestalde, Ribeiro R, Athaude G, et al-ek 17 pertsonako laginarekin talde terapiak bizi-kalitatean dakarren eragina aztertu zuten SAQOL-39 (Spanish Stroke and Aphasia Quality of Life) eskalaren bidez. Ikerlan honetan, emaitzak baieztatzeko ausazko entsegu klinikoaren beharra azpimarratzen bada ere, talde terapiak afasia kronikoa pairatzen dutenen bizi kalitatearen berreskuratzea dakarrela ondorioztatu zen, batez ere eremu fisiko ($p=0.016$) eta komunikazioaren eremuan ($p=0.039$)¹⁵.

Terapia intentsiboaz hitz egitean, gehiago dira afasia kronikoan honen eraginkortasuna neurtu nahi izan dituzten lanak. Horien artean, Code C, Torney A, et al-ek hilabeteko terapia intentsiboaren eraginkortasuna nahi izan zuten aztertu 7 partehartzaileetan. Horretarako EAAT (English version Aachen Aphasia Test) eta CETI (Communicative Effectiveness Inventory) erabili zituzten taldea aztertzeko. Lehenengoaren arabera, zeina afasiaren diagnostikorako erabiltzen den, interbentzioaren ostean hobekuntza esanguratsuak eman ziren ($p=0.02$), hilabetera hobekuntzek jarraituz ($p=0.02$). CETIren arabera aldiz, komunikazio funtzionala neurtzen duelarik, interbentzio ostean hobekuntzak eman ziren baina ez esanguratsuak, hilabetera emaitzak mantendu baina ez zirelarik hobetu. Ondorioz, lan honen arabera, esan daiteke hilabeteko terapia intentsiboak hobekuntzak dakarrela komunikazioan, baina ez zuen azaltzen terapia horren intentsitate maila²⁸.

Taula 3: emaitzak afasia kronikoan

IDAZLEA eta URTEA	INTERBENTZIOA + IKTUS OSTEKO DENBORAREN MEDIA	BERRESKURATZEA	
		Komunikazioa	Bizi kalitatea
Stahl B, Mohr B, et al. 2018 ²⁶	Hizkera eta Lengoaiia terapia modu intentsiboan 65.2 hilabete	<u>AAT</u> : hobekuntza esanguratsuak <u>ACT</u> : hobekuntza esanguratsuak	Neurtu gabe
Manson C, Nickels L, et al. 2020 ²⁷	Talde terapia 12 hilabete	- <u>Hitz-gakoen erabilera elkarrizketan</u> (use of target words in semistructured interview): hobekuntzarik ez - <u>POWERS</u> (Profil of words retrieval and errors in speech): hobekuntzarik ez - <u>Idea proposionalen dentsitatea</u> (Propositional Idea Density): hobekuntzarik ez - <u>Diskurtsoen kalifikazioa</u> (Discourse Ratings): 3tik 1ek hobekuntzak.	Neurtu gabe
Lima RR, Athaide GA, et al. 2018 ¹⁵	Talde terapia 8.8 hilabete	Neurtu gabe	<u>SAQOL-39</u> -eremu fisikoan p=0.016 -komunikazio eremuan p=0.039
Code C, Torney A, et al. 2010 ²⁸	Terapia intentsiboa 34.4 hilabete	<u>EAAT</u> : -Tratamendu ostean p= 0.02 -Hilabetera p= 0.02 <u>CETI</u> : -Tratamendu ostean hobekuntzak baina ez esanguratsuak -Hilabetera emaitzak mantendu	Neurtu gabe
Hoover E, Caplan D, et al. 2017 ¹⁸	Terapia intentsiboa 4.9 urte	<u>ASHA FACS</u> p= 0.013 <u>DCT</u> p<0.006 (p-ren balioa 0.01)	<u>SIS</u> p=0.02 (p-ren balioa 0.01)
Breitenstein C, Grewe T, et al. 2017 ²⁹	Terapia intentsiboa (indibiduala + taldeka) > 6 hilabete	<u>ANELT</u> p< 0.0001 <u>SAPS</u> p<0.001	SAQOL-39 p<0.05
Rodriguez A, Worrall L, et al. 2013 ³⁰	Terapia intentsiboa LIFT1: 31 hilabete LIFT2: 22.8 hilabete	<u>CAT</u> p=0.311 <u>BNT</u> interbentzioa bukatu eta 6-8 astera p=0.024 <u>CETI</u> p=0.008	<u>QCL</u> 6-8 astera p=0.038 <u>ALA</u> p= 0.017
Mozeiko J, Coelho CA, et al. 2016 ³¹	Terapia intentsiboa vs ohiko terapia 1 urte	<u>WAB-R AQ</u> : -Intentsiboan guztiek hobekuntzak -Ohikoan erdiek <u>CADL-2</u> -Intentsiboak guztiek hobekuntzak -Ohikoan erdiek eta batek mantendu	Neurtu gabe

Hoover E, Caplan D, et al.ek erabilitako ICAP (Intensive Comprehensive Aphasia Program) programan, partehartzaileek 6 orduko terapia izaten zuten egunean, astean 5 egunez, 4 asteetan zehar. Honen eraginkortasuna neurtzeko, bai komunikazio zein bizi kalitatearen berreskuratzean, 27 laguneko lagina erabili zuten, iktus osteko denbora 6 hilabetekoa izanik. Horretarako, ASHA FACTS (American Speech-Language and Hearing Association’s Assessment of Functional Communication), DCT (Discourse Comprehension Test) eta SIS (Stroke Impact Scale) erabili zituzten. Hauen arabera, ICAP bai komunikazio (ASHA FACTS p=0.013; DCT p<0.006 (p-ren balioa 0.01)), bai

bizi-kalitatearen (SIS $p=0.02$, p -ren balioa 0.01ean ezarriz) berreskuratzean eraginkorra izan zen iktus osteko afasia kronikoa pairatzen zuten indibiduoetan¹⁸.

Breitenstein C, Grewe T, et al-ek ere terapia intentsiboaren eraginkortasuna nahi izan zuten baloratu. Horretarako astean 10 ordu baino gehiagoko terapia indibiduala eta talde terapia konbinatzen zuen interbentzioa ezarri zuten, baina partehartzaileek ($n=158$) astean 5 ordu baino gehiago landu behar zuten etxean ere. Horretarako Ikerlan honetan, aurretiaz aipaturiko SAQOL-39 eskala erabili zuten bizi kalitatea neurtzeko eta interbentzio taldean ($n=79$) hobekuntza esanguratsuak erakutsi zituen ($p<0.05$). Komunikazioa neurtzeko aldiz, ANELT (Amsterdam-Nijmegen Everyday Language Test) eta SAPS (Sprachsystematisches APhasieScreening) erabili zituzten besteak beste, biek erakutsirik hobekuntza esanguratsuak ($p<0.0001$ bi kasuetan). Kontrol taldeari dagokionez ($n=79$), hiru astera interbentzio berdina eraman zen aurrera, antzerako emaitza positiboak erakutsirik²⁹.

Rodriguez A, Worrall L, et al-ek ere, aurretiaz aipaturiko LIFT tratamenduaren emaitzak nahi izan zituzten baloratu, lengoaiaren narriadura, komunikazio funtzional eta bizi kalitateari dagokionez. Horretarako, duela sei hilabete ezker hemisferioan iktusa jasan eta afasia pairatzen zuten 11 paziente aukeratu zituzten eta bi kohorte burutu. Lehenengoan, 40 orduko terapia jaso zen 2 asteetan eta bigarrean, 100 ordu 4 asteetan. Lengoaia narriadura baloratzeko CAT (Comprehensive Aphasia Test) eta BNT (Boston Naming Test) erabili zituzten eta lehenengoak ez bazituen ere hobekuntza esanguratsurik erakutsi ($p=0.311$), bigarrenak bai ($p=0.024$). Ikerlariek beraz, LIFT programak lengoaia narriadurari dagokionez hobekuntza txikia dakarrela ondorioztatu zuten. Komunikazio funtzionalari dagokionez, CETI erabili zuten, non $p=0.008$ izanik, familia-kalifikazioaren arabera, komunikazio funtzionalaren eskuratze eta mantentzean hobekuntza sendoak ageri ziren. Bizi kalitatean ere, QCL (the Quality of Communication Life scale) eta ALA-ren (the Assessment for Living with Aphasia) arabera ($p=0.017$) hobekuntza esanguratsuak eman ziren. Ondorioz, esan daiteke LIFT programak emaitza positiboak dakartzala lengoaiaren narriadura, komunikazio funtzional eta komunikazioarekin erlazionaturiko bizi-kalitatean³⁰.

Azkenik, intentsiboa den eta ez den terapia konparatu nahirik, azken ikerlan bat daukagu: Mozeiko J, Coelho CA, et al-ek Iktus osteko afasia urtebetez pairatzen duten 8 indibiduoeko laginarekin ausazko entsegu klinikoa burutu zuten. Bertan, Terapia intentsiboa (3h/egunean, 5 egun/astean, 2 astez), terapia erregularrarekin (1h/egunean, 3

egun/astean, 10 astez) konparatu zen. Horretarako, WAB-R AQ (Western Aphasia Battery- Aphasia Quotient) eta CADL-2 (Communication Activities Daily Living-2) erabili ziren eta hauen arabera, terapia intentsiboa jasotako partaide guztiek izan zuten hobekuntza esanguratsua. Erregularra jaso zutenei dagokionez, WAB-R AQaren bidez erdiek izan zituzten hobekuntzak. Baita ere CADL-2ren arabera, baina kasu honetan bakarrak mantendu zituen emaitza positibo horiek. Hala ere, lanaren ondorio eta eztabaidatan ikus genezake nola ikerlariak dioten, 3h/egunean, 10 egunez jasotako terapia oso neketsua izan daitekeela pazienteentzako eta ondorioz, ezin daitekeela esan terapia sakabanatua jaso zuten horiek irabazirik jasoko zuten edo ez terapia intentsibotik³¹.

Laburbilduz, ezin dugu guztiz zehaztu Iktus osteko afasia kronikoan hizkera eta lengoia terapia eraginkorra den edo ez komunikazio gaitasunaren berreskuratzerako, izan ere honen ebidentzia eskuratzeko lan bakarra daukagu eta bertan terapia modu intentsiboan dago emana²⁶. Bizi kalitateari dagokionez, aldiz, ez da inolako ebidentziarik aurkitu. Talde terapiarekin jarraituz, alde batetik komunikazioaren eremuan ez dela eraginkorra dion ikerlan bat daukagu, baina aurretiaz aipatu bezala estatistikoki ez da esanguratsua lagin tamaina dela eta²⁷. Bestalde, terapia indibiduala eta talde terapia konbinatuz bai komunikazio zein bizi kalitatean emaitza positiboak ematen direla esaten digun lana daukagu²⁹. Baita ere, talde terapiak zuzenean bizi kalitatean dituen onurak neurtzen dituen ikerlana¹⁵. Azkenik, terapia intentsiboari dagokionez, Iktus osteko afasia kronikoan bai komunikazio zein bizi-kalitatearen berreskuratzerako egokia dela baieztatzen digun hainbat ikerlan ditugu^{18,28-30}. Hala ere, ez da argi geratzen terapia intentsiboa edo ohiko terapia izango litzatekeen egokiago, kontuan hartuz terapia intentsiboa neketsuegia izan daitekeela pazienteentzako³¹.

MUGAPENAK

Lan honen garapenerako lehendabizi azaldu beharrekoa helburuan eman ziren aldaketak dira. Izan ere, hasiera batean lanaren helburua iktus osteko afasian hizkera eta lengoia terapiak, talde terapiak eta terapia intentsiboak bizi-kalitatearen berreskuratzean duten eragina aztertzea zen. Baina, informazio falta zela eta, beharrezkoa ikusi zen ikerlanaren *Outcome* atala zabaldu eta komunikatzeko gaitasunaren berreskuratzea ere barneratzea. Hala eta guztiz ere, aurkitutako informazioa mugatua izan da eta gainera, ateratako emaitzak ezin dira zuzenean gure ingurura estrapolatu. Izan ere, emaitza atalean azaldu bezala ikerlanak hainbat lurralde desberdinetakoak dira, bat ere ez delarik EAE edo estatu mailan egina eta jakina da, adibidez, Amerikako Estatu Batuetan edo Euskadin osasun sistema oso desberdina dela.

Horretaz gain, aurretiaz aipatu bezala, aztertutako populazioa oso heterogeneoa da eta gainera, lan bakoitzean aldagai desberdinak lantzen dira: hala nola, adina, ikasketa maila, iktusa jasan eta igarotako denbora, afasia mota eta gradua edo sostengu soziala. Hori dela eta, ikerketan zehar emaitzak momentu akutu edo kronikoan egotearen arabera banatu arren, sexua eta adina ere kontuan hartu dira. Modu horretan, aipatzekoa da sexuri dagokionez ez bada ere aldaketarik nabaritu, ikerlan batzuetan adinari dagokionez ipini den muga bakarra adin nagusikoa izatea izan dela. Hori dela eta, paziente gehienak 60tik gorakoak izan arren, adin oso desberdinetako jendea batu izan da interbentzio bererako. Horregatik, aipatzekoa da aurrera begira komenigarria litzatekeela zehaztasun handiagoz jorratzea datu demografiko hau, batez ere kontuan izanik iktus osteko afasia pairatzen dutenen hiru laurdena 65 urtetik gorakoak direla eta gaitasun kognitiboak ez direla berberak 65 edo 18 urterekin.

Ikerketen diseinuari dagokionez, egokiak izan dira. Hala ere, lagin tamaina askotan ez zen nahikoa populazioarekiko adierazgarria izateko eta beraz, emaitzak klinikoki esanguratsuak izan daitezkeen arren, estatistikoki ez.

Interbentzioari dagokionez, hiru interbentzio desberdin aukeratu izanak informazio gehiago lortzeko aukera eman zuen, baina aipatzekoa da interbentzio mota berdina ere, desberdin eramaten dela aurrera ikerlan desberdinetan. Azkenik, emaitza atalari dagokionez, hauek neurtzeko erabilitako neurri eta eskalak hainbat dira eta beraz, hauen arteko konparaketa egitea ez da erraza, eraginkorra den edo ez esan daitekeelarik bakarrik.

Beraz, esan daiteke lana aurrera eramateko izandako lehenengo muga informazio falta izan zela, bigarrenaz aurkitutako ikerlanak ezin direla zuzenean gure ingurura estrapolatu eta azkenik, lan askotan erabilitako lagin tamaina dela eta emaitzak ez direla estatistikoki esanguratsuak.

ONDORIOAK

Errebisio lan honen helburua, iktus osteko afasia pairatzen duten pertsonetan hizkera eta lengoaia terapia, talde terapia eta terapia intentsiboak komunikatzeko gaitasun eta bizi kalitatearen berreskuratzean duten eragina aztertzea zen. Izan ere, ebidentziaren arabera, patologia honen intzidentzia handituz doa, jasaten duten pertsonen eguneroko bizitzako aktibitate eta independentzian negatiboki eraginez. Alde batetik, komunikazio-nahastea den heinean, lengoaiaren formulazio eta ulermen prozesuetan eragiten du. Bestalde, komunikaziorako sarrera hori oztopatua dagoenez, bizi kalitatean ere eragiten du, isolamendua edo depresio bezalako egoerak sortu ditzakeelarik. Hori horrela beraz, atal honetan hiru terapia horien eraginkortasunaz arituko gara.

Hizkera eta lengoaia terapiarekin hasiz, errebisio sistematikoen arabera afasia pairatzen duten indibiduen komunikazio gaitasun eta bizi kalitatearen berreskuratzeari dagokionez eraginkortzat ematen bada ere, esan beharra dago ez dela nahiko ikerketa aurkitu hori baieztatzen duenik. Gainera, badirudi iktusa izan eta igarotako denborak zer esan handia daukala, oso goiztiarra den HLT ez-eraginkortzat eman delarik. Momentu kronikoan aldiz, badirudi komunikazio gaitasunaren berreskuratzerako eraginkorra dela. Hala ere, aipatzekoa hori baieztatzen duen ikerlanean HLT modu intentsiboan eman zela.

Talde terapiarekin jarraituz, aipatu beharra dago ezer gutxi aurkitu zela iktus osteko afasia pairatzen duten indibiduoetan komunikazio eta bizi kalitatearen berreskuratzeari buruz: fase akutuarekin hasiz, komunikazioaren berreskuratzean emaitza positiboak dakartzala ondorioztatu ahal izan da ikerlan batzuen bidez. Hala ere, aipatzekoa da taldekakoaz gain intentsiboak ere bai zirela terapia horiek eta denbora erdian emandako indibiduala eta taldekakoa konbinatzen zituen terapiarekin emaitza berdinak lortu zirela. Fase kronikoan aldiz, bizi kalitatearen berreskuratzean eraginkorra dela ondorioztatu arren, ezin da berdina esan komunikazioari dagokionez, ez bai da hori baieztatzen duen ikerketa esanguratsurik aurkitu.

Terapia intentsiboarekin bukatuz, aipatzekoa da eraginkorra izan zen LIFT programa aurkitu bada ere, fase akutuan ez zela desberdintasunik nabari ohiko terapia edo terapia intentsiboa eramaten zuten taldeen artean. Honen arrazoi bezala, terapia intentsiboa momentu akutuan pazienteentzako neketsuegia izan daitekeela, saturazioa eraginez, ondorioztatu da. Fase kronikoan aldiz, intentsiboak ziren baina aldi berean intentsitate desberdina zuten lan desberdinak aurkitu ziren komunikazio eta bizi kalitatearen berreskuratzerako eraginkortasuna erakutsi zituztenak.

Laburbilduz, esan genezake beste edozein prozesutan bezala, iktus osteko afasia pairatzen dutenenganako atentzioa indibiduoaren beharren arabera izan beharko dela. Hau da, indibiduoaren faktoreak izan beharko dira kontuan (iktusa izan eta igarotako denbora, adibidez) terapia egokiena aukeratzeko. Modu honetan, kontuan izan beharko da ohiko hizkera eta lengoia terapiak atentzio pertsonalizatua eskaintzen duen bezala, talde terapiarekin sozializazioa bultzatu daitekeela. Horregatik izan daiteke ere bai, terapia batzuetan indibiduala eta taldekakoaren arteko konbinazioa eskaintzea. Horretaz gain, terapia intentsiboari dagokionez ere, indibidua kontuan izan beharko da; batzuentzako oso erabilgarria izan daitekeen arren denbora urrian emaitza positiboak lortzeko, beste batzuentzako gehiegizkoa izan bai daiteke. Guzti hau jakinda, erizainaren rola paziente bakoitzaren datuak kontuan izanik ze terapia datorkion egokien adostea izan daiteke. Azken batean ezin bai dugu ahaztu erizainon papela pertsonen behar fisiko, emozional zein sozialetan oinarriturik zaintza ematea dela, beraien autonomia bultzatzeko, besteak beste. Horretako, beharrezkoa litzateke erizainek iktus osteko afasiari buruzko ezagutzak izatea, betiere disziplina anitzeko zainketa batean zentratu.

